guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

2020-02-28 OSTIRALA / 719. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Ihoteen despedida

/ 12-19

FRANCIS IRIGOIEN

Euskarazko hezkuntza bermatzearen aldeko manifestazioa deitu dute / 2-3

Altsasuko Udalak ia 8 milioi euroko aurrekontua onartu du; Ibarrean eginen da inbertsio handia / 5

Altsasuko auziko bi presori espetxetik hiru egunez ateratzeko baimena eman diete / 6

Joseba Beltran de Heredia Euskal Herriko Haurren Neguko Igeriketa Txapelketan aritu da / 8

Musicos sin fonteras GKEren dokumentala eskainiko dute bihar, Lakuntzako kultur etxean, 19:00etan / 22

Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topagunearen murala, euskaraz bizitzea aldarrikatzen duena. ARTXIBOA

Euskaraz ikastearen alde

Euskaraz ikasteko oztopoak salatu eta Hezkuntza Departamenduari hizkuntza eskubideen alde egiteko eskatzeko, manifestazioa antolatu dute: "Euskara eskubidea. Ni mas, ni menos", Iruñean, larunbatean, 17:00etan, Golemetan

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskarak derrigorrezko hezkuntzan bidea egin du. Ikasle elebidunak prestatu ditu eta horrek beraiei eleaniztasunera salto egiteko erraztasuna eman die. Euskaraz bizitzeko erabakia egin dugunon eskubide batzuk bete dira, bai. Baina gaur egun euskaraz ikasteko oztopoak daude Nafarroa osoan eta irakaskuntza maila guztietan, hasi haur eskoletatik eta unibertsitatean bukatu arte: ez dago bermatuta nafar guztiek euskaraz ikasteko aukera izatea, Iruñeko Udalak haur eskoletako egungo euskarazko eskaintza erdira murriztu nahi du, Antsoaingo haur eskolan ez da sekula euskaraz ikasteko aukera eskaini eta gurasoek umeak Iruñera eraman behar dituzte, eskaera egon arren Mendigorrian D eredurik ez da martxan jarriko, Castejongo eskolari PAI programatik atera eta D ereduan sartzea eragotzi dio departamentuak, Nafarroako Gobernuak aurten ez du D ereduaren aldeko kanpainarik egin, Lanbide Heziketan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko ikasketa eskaintza murritza da eta ikasleak euskaraz ikastera kanpora joaten dira. Nafarroako Gobernuari hezkuntza arloan euskararen alde egiteko eskatuko diote herritarrek bihar.

Euskal Herri guztiko Lanbide Heziketak arazo orokor bat du: euskarazko ikasketen falta. Eta Sakana Lanbide Heziketa institutua ez da salbuespena. "FP eta BUP euskaraz nahi ditugu" leloa errepikatuz makina bat manifestazio egin ziren 1986ko martxoan. Mobilizazioek fruitua erdizka eman zuten: batxilergoko ikasketak 1986-87 ikasturtean hasi ziren Altsasun. Ez, ordea, Lanbide Heziketakoak. 1993-1994 ikasturtean ikasleek hilabeteko greba egin zuten euskarazko Lanbide Heziketa eskatzeko. Euskal Herrian pauso batzuk eman dira arlo horretan ordutik, baina Lanbide Heziketaren eskaintza ez da erabat euskaldundu. Aurrerako pauso horietako bat Sakanan 2018ko irailean egin zen, Sakana Lanbide Heziketa institutuan mendekotasun egoeran dauden pertsonendako erdi mailako arretarako teknikari zikloa euskaraz ematen hasi zenean. Gainontzeko ikasketa guztiak gaztelaniaz dira: Oinarrizko Lanbide Heziketako merkataritza zerbitzua, erdi mailako mantentze-lan elektromekanikoa, soldadura eta galdaragintza eta araubide bereziko kirol ikasketak bai mendi ertaina bai eskalada eta goi mailako industria mekatronika eta Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa (ikasketa duala).

BESTEAK BESTE, LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA EUSKALDUNTZEA ESKATUKO DA

Baina...

Ikastoletatik eta eskola publikoetatik, D eredutik, makina bat ikasle ateratzen dira. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak emandako datuen arabera ikasturte honetan ibarreko ikasleen % 83 D ereduan ikasten ari da. Haietako askok egiten duten aukeraren arabera beraien ikasketa prozesuak euskaraz segitu ahalko dituzte, edo ez.

Ikasle euskaldunak hartzen dituztela jakitun dira Sakana Lanbide Heziketa institutuan. Horregatik, irakasle euskaldunak ikasle euskaldunei bakarkako azalpenak eman behar dizkietenean haiekin euskaraz hizketatzen dira. Ikasle euskaldunen errealitate hori ere zentroaren plan estrategikoan jasota dago. Irakasle euskaldunen premia nabarmendu zen dokumentu horretan eta 2020-2021 ikasturterako irakasleen erdia D eredukoa izatea nahi dutela jaso zuten. Orain arteko hezkuntzako ikuskariek institutuko zuzendaritzaren planteamenduarekin bat egin dute.

Nafarroan gobernu aldaketa egon da eta institutuko zuzendaritza Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin harremanetan da bere plan estrategikoa nola gauzatu aztertzeko. Plantillaren erdia euskalduna izateko norabidean borondate osoa du zuzendaritzako taldeak, eta horretarako lanean ari da.

Irakasle euskaldunak etortzeko bideetako bat da jubilazioagatik edo lekualdatzeagatik ikastetxea uzten duten irakasle erdaldunen ordez euskaldunak hartzea. ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek azaldu dutenez, "Sakana Lanbide Heziketa institutuan eman behar den prozesua aurretik Berako Toki Ona edo Elizondo Lanbide Heziketa institutuetan eman zena da. Biak UPNren garaian emandako prozesuak dira". Hiru sindikatuek gaineratu dutenez, "Altsasun emandako prozesua eten egin



dute, hainbat sindikatuk atzetik horren kontra jo dutelako, CCOO, UGT eta AFAPNA hain zuzen ere. Ikastetxeko ikuskaritzak idatziz jaso du sindikatu horietako batek esandakoa: ikasle gehienak euskaldunak baldin badira ere, badakigu klaseak gaztelania hutsean ematen direla, soilik egunon esaten da, eta gainontzeko guztia gaztelaniaz".

ELA, LAB eta STEILAS sindikatuendako "argi eta garbi ikusten da euskararen kontra jotzeaz aparte, soilik gaztelerazko zerrendatik lan egin dezaten nahi dutela. Ikasleen nahiak eta beharrak goitik behera baztertuz, ahaztuz hezkuntzako parte garrantzitsua dela". Eta gogorarazi dute Sakana eta Lanbide Heziketa institutua eremu euskaldunean kokatuta daudela.

Hiru sindikatuetatik nabarmendu nahi izan dute behin betiko plaza duten gaztelaniazko zerrendako lau irakasle azken 8 urtetan zuzendaritzan egon direla. "Ikasleen beharrak ikusi zituzten eta irakasleak euskaldunak izan behar direla argi eta garbi ikusi zuten. Alde batetik, ikasle euskaldunei, zalantzak edukiz gero euskaraz azaltzeko edo tailerrean banakako lanpostuetan edo makinetan azalpenak euskaraz emateko".

ELAtik, LABetik eta STEILASetik azaldu dutenez, Sakana Lanbide Heziketa institutuaren plan estrategikoa beteko balitz "gaztelerazko edo euskarazko beharrak bermatu ahalko lirateke. Bestalde, Sakanako ikasle guztiek, ibarrean ikasi ahalko lukete beste leku batzuetara joan gabe. Bi eredu ezarriz gero matrikula kopurua Sakanarako nahiko justua izanen litzateke". Bestetik, sindikatuek azaldu dute plan estrategikoan jasotakoa egiten ez bada ikasleak alde egiteko arriskua dagoela, erdaldunak Gasteiz edo Iruñera joateko, edo euskaldunak Goierrira. Horregatik, Hezkuntza Departamentuari eskatu diote zuzendaritza taldeak prestatutako plan estrategikoa bere egiteko.

2018-2019 IKASTURTEAN INSTITUTUKO IKASLEEN % 70 EUSKALDUNA ZEN

"Funtzionamendu honek errealitatea onartzen du"

ALFREDO LAKUNTZA, MIKEL AUZA ETA IÑIGO BARAZE

ELA, LAB ETA STEILAS SINDIKATUETAKO HEZKUNTZA ARLOKO DELEGATU SINDIKALAK

Sindikatuetako ordezkariak institutuak ezarri nahi duen sistemaren alde daude

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakana Lanbide Heziketa institutuarekin kezka duzue, ezta?

Alfredo. Bai. Alde batetik, ikusten dugu euskarazko eskaintza oso murritza dela eta azken urteetan hori aldatzeko ezer gutxi egin da. Oposizioetan plaza ia-ia denak gaztelaniaz ateratzen dira. Horrek kezkatzen gaitu, euskaraz ikasi dutenei euskaraz jarraitzeko aukerarik ez baitio ematen.

Irakasleen egoera zein da?

Mikel. Bitartekotasun tasa handia dago. Gure ustez irakasle finko gehiago izan beharko lirateke. Eta euskaldunak izatearena oso garrantzitsua ikusten dugu, ikasleen % 70 euskaldunak baitira.

Bitarteko izate horrek nola eragiten du bai langileengan bai ikasleengan?

Iñigo. Nafarroako ikastetxe guztietan du eragina bitartekotasunak. Jarraitasun eza dago, urtero irakasle berriak sartzen dira. Jende berria ikastetxeak zerotik ezagutu behar du. Eta epe luzeko proiektuak ezartzeko ezintasuna dakar, urtero irakasle aldaketak daudelako. Irakasleek urtero irakasle berriak ezagutu behar dituzte. Beti erosoagoa da guztiondako aldez aurretik ezagunak izatea, dinamika ezaguna izatea. Eta hurrengo urtean kontratatuak izanen ote diren kezka.

Bitartekotasuna konpontzeko zer neurri hartu beharko lituzke Hezkuntza Departamentuak?

A. Hau arazo orokorra da, hezkuntzan bitartekotasuna oso altua da. Sindikatu guztiok behin eta berriro salatu dugu. Duela gutxi Kontu Ganberak salatu zuen administrazioan ia-ia % 48 ingurukoa dela. Eskandalagarria da. Europarekin konparatuz gero ikaragarria da. Hasteko, laneskaintza publiko masiboak beharko lirateke, bitartekotasuna endemikoa delako. Gainera, euskaraz behar diren plazak askoz gehiago izan beharko lirateke. Guk departamentuari esaten diogu Nafarroan behar ditugu plazak diagnostiko batean atera eta horien deialdia egin. Ezin dugu beti egon Madrilek zer esaten duen, edo zer baimentzen duen edo zer ez. Baizik eta hemen erabaki zer behar dugun gure hezkuntza hobetzeko.

Alfredo Lakuntza, Mikel Auza eta Iñigo Baraze.

"DEPARTAMENTUAK D EREDUKO BOST LANPOSTU FINKO GELDIARAZI DITU, NAHITA"

Zein diagnostiko egiten duzue gure kasuan?

M. Zuzendaritzak irakasle euskaldunak ekartzeko plana egin zuen. Batez ere ikusten delako ikasleengan behar bat, gehiengoa euskalduna delako. D ereduko zerrendatik hartuz gero, bermatzen da gaztelania eta euskara dakitela. Klaseetan euskaldunen kopurua zein den begiratu behar da. Baina, esaterako, suertatu daiteke urte batean guztiak euskaldunak izatea eta klaseak euskaraz ematea. Bestetik, ikasle euskaldunei azalpenak berriro ematerakoan, irakasleria euskalduna izanda euskaraz eman ahal zaie. Zuzendaritzatik apustu hori egin zuten, baina Hezkuntza Departamentutik D ereduko bost lanpostu finko geldiarazi dituzte. Hori nahita egin dute. Azkenean beti ikasle euskaldunak galtzen dute. Ni gaztelaniako zerrendakoa naiz eta behar hori ulertzen dut (sindikatuan liberatu aurretik Altsasun irakaslea zen). Desplazatua banaiz, ulertzen dut ikasleak ikastetxe batean gauza inportantea dela. Ez bakarrik irakaslea. Azkenean, Sakana Lanbide Heziketa institutuan euskaldunak gehiengoan daude eta beraien eskaerak bermatu behar dira.

Departamentuak zergatik bota du atzera bost lanpostuen deialdia?

I. Gaztelaniazko zerrendetatik ateratako irakasleren baten kexaren bat izan zen. Esaten zuen ikasleak euskaldunak zirela baina klaseak berez ez zirela euskaraz egiten. Baina hori ez da erabat horrela. Egia da, batzuetan, klase batean ikasle euskaldunak eta ez euskaldunak elkartzen direnean guztiendako azalpena gaztelaniaz ematen da. Baina, gero, ikasle euskaldunei azalpen zehatz bat emateko edo beste zerbaitegatik hurbiltzen denean fresatzeko makinara edo tornura, irakasleak azalpenak euskaraz ematen dizkie. Azkenean da institutuaren errealitatea ez ikustea. Ikasle euskaldunak eta erdaldunak elkarrekin egon behar direla ez onartzea, eta horiek bereizi nahi izatea. Guk uste dugu orain dagoen funtzionamendua zuzena dela, Sakanako errealitatea onartzen duena da.

Hemen zerk egiten du talka, irakasleen eskubideak eta ikasleak euskaraz ikasteko eskubideak?

A. Askotan ikusten ditugun irakasleen eta ikasleen eskubideak batera doaz hemen. Ikasleek euskaraz ere ikasteko eta haien ikasketak jarraitzeko eskubidea dute, jakina. Baina irakasleek ere aukera izan behar dute euskaraz irakasteko. Beste zentroetako delegatuek esaten dute ikasle euskaldunekin banaka daudenean beti saiatzen direla, eta beti ematen dute informazioa euskaraz. Besteek ere nahi dutelako, eta gertutasun hori bilatzen dutelako. Baina gero ofizialki hori ez da aitortzen, edo ez dauka isla plazak edo zikloak ateratzerakoan. Bestalde, zerrendetako segregazioa dago: zerrenda gaztelaniaz eta euskaraz. Guk uste dugu hezkuntzari komeni zaiola jende euskalduna izatea. Azkenean, hizkuntza bietan eman ditzake edukiak. Gaztelaniazko zerrendetan daude batzuk eta euren "pribilegioak" gorde nahi dituzte. Hor erresistentziak aurkituko ditugu.

Sakana Lanbide Heziketa institutuko plan estrategikoan euskarari lehentasuna ematen zaio.

M. Bai. Gainera, aipatu behar da zuzendaritzako jendea erdal eredutik datorrela. Hori azpimarratu nahi dut. Gehienek ez zekiten euskara, baina beharra ikusten zuten, ikasle gehienak euskaldunak direlako. Zuzendaritzatik ikuskariarekin lan bat egin zen eta ikusten zen argi eta garbi etorri behar diren irakasleak euskaldunak izan behar direla, ikasle euskaldunen eskubideak eta hezkuntza euskaraz bermatzeko.

Aurrera begira sindikatuek zer eginen duzue?

I. Alde batetik, salatuko dugu, jendeak zer gertatzen ari den jakin dezan. Sakana eremu euskaldunean dago eta euskarazko irakaskuntza sustatu behar da. Salatu eta presioa eginen dugu, irakasle euskaldunak etortzeko.

ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Ikaratzekoak

Aurrekoan entzun nuen irratian, Hego Korean ama batek bere zazpi urteko alaba galdu zuela, minbizi baten ondorioz. Telebista kate baten laguntzaz, errealitate birtualeko enpresa bati ordaindu zioten bere alabaren itsura, ahots, portaera eta irribarrea zituen erreplika birtuala sortzeko. Errealitate birtualeko betaurrekoen bitartez, alaba berriz ikusi, entzun eta sentitu ahal izan zuten beren inguruan. Programatutako erantzunak etengabe aldatzeko gaitasuna duen adimen artifizialeko produktua herrialde osoak ikusi ahal izan zuen zuzenean telebistan. Zientziaren posibilitateak izugarriak dira, benetan ikara sortzekoak.

Egin ahal bada egingo da. Ematen du inolako mugarik ez dugula, diru truk, edozer egin dezakegula. Heriotza bera ere, alde batera utzi eta algoritmo eta ekuazioen bitartez sortutako errealitatea onartzeko prest gaudela, hura gure gustokoago baldin bada. Matrix film ezaguna ikusi duen orok pentsatuko du, nola goazen bidean, errealitatetik gutxi duen mundu fiktizio baterantz. Hilezkortasuna eta betiko gaztetasuna saltzen duen sistemak, heriotza bera ukatu eta hura trufatzeko gai dela sinetsirik dago. Errealitate gordina onartzeko zailtasunak zoriontasun amaigabearen munduan.

ZIENTZIAREN POSIBILITATEAK IZUGARRIAK DIRA, BENETAN IKARA SORTZEKOAK

Balio etiko edo moralak aldendu beharreko zeozer direla sinetsirik, aurrerapena bikaina dela uste dugu. Berritasunak zoriona dakarrela, eta zaharrak berriz asperkeria. Anestesiatutako gizartea sortuz doa poliki. Zer esan, nola egin, zer izan. Tamalez, gailu elektroniko modernoena eta konexio azkarrenaren truke, askatasuna bera ere saltzeko prest ikusten ditut inguruak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Jaibus zerbitzuaren berrikuntzak

SAKANAKO PREBENTZIO PROGRAMAK

Sakanako gizarte zerbitzuetako hiru mankomunitateetako prebentzio programetatik ohar hau baliatu nahi dugu 2020. urtean Jaibus programan egingo ditugun aldaketen berri emateko. Aldaketa horiek Nafarroako gurea bezalako programa guztiak (Joan eta Etorri, Jaibus) bateratzeko beharretik sortu dira, prebentzio helburuak betetzeko; izan ere, horretarako ezarri ziren programa horiek.

Jaibus programak gutxitu nahi ditu alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoak jaietako une zehatzetan, larunbat gauetan batez ere, eragiten dituen trafiko istripuak. Dagoeneko 20 urte daramatza Jaibusak martxan, eta hasieratik aldaketak egiten joan gara behar berrietara egokitzeko. Hasiera batean udan bakarrik funtzionatzen zuen zerbitzuak, oso egun gutxitan, eta askoz autobus gutxiago erabiltzen ziren. Hala ere, hori aspaldian aldatu zen Sakanako Mankomunitatea osatzen duten udalek egin zuten zerbitzuaren aldeko apustuari esker (nahiz eta beti uste dugun beharrezkoa dela aurrekontua handitzea zerbitzua egun gehiagoz eskaintzeko). Hori guztia oso ondo dago, baina ezin ditugu ahaztu programaren helburuak. Printzipioz, trafiko istripuak prebenitzeko programa bat da, eta, beraz, adineko pertsonei zuzenduta dago. Edonola ere, ez dugu ahaztu nahi gure inguruko errealitatea, non adin txikikoak herrietako jaietara joaten diren. Hori ikusita, hainbat aldaketa egin ditugu. Hala eta guztiz ere, badakigu zerbitzuak bilatu gabeko ondorioak ekar ditzakeela, baita programarekiko kontraesankorrak direnak ere.

Adibidez, gerta daiteke jaietarako irteerak areagotzea Jaibus egoteagatik edo erabiltzen duten pertsonen adina oso txikia izatea, eta bi kontu horiek, jakina, talka egiten dute programaren prebentzio helburuekin. Guztiz frogatuta dago adin txikiko pertsonek arrisku handiagoa dutela kontsumo inguruneetan kontsumitzeko, eta zenbat eta kontsumo handiagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa dagoela ondorio negatiboak izateko, hala nola istripuak/erorketak, borrokak, zorabioak, koma etilikoak, zurikeriak, mendekotasun arazoak, etab. Zientifikoki frogatuta dago garunaren heldutasun-garapena ez dela amaitzen 23 urte bete arte, gutxi gorabehera, eta, beraz, garrantzitsua da garapen hori babestea eta zaintzea, adin txikiagoan arriskuak areagotu egiten baitira zentzu guztietan (garapena, heltzea, etab.). Gure ustez, gaia familien ardurakoa da, eta familioi dagokigu gure adingabeen osasuna zaintzea. Horrek esan nahi du kontziente izan behar dugula gure seme-alabak parrandara oso gazte doazenean eta askotan joaten badira, askoz arrisku handiagoak dituztela.

Nafarroa osoko profesionalek programa horien arduradun gisa izan dugun azken topaketan ondorioztatu dugu, besteak beste, batzuetan Jaibusa egoteak erraztu egiten duela familia batzuek adingabeei festara joaten uztea, lehen aipatu ditugun arriskuekin. Badakigu batzuetan oso zaila dela familientzat gazteei ezetz esatea, oso tematiak direlako, taldearen presioagatik, Jaibusa segurua dela ulertzen dugulako, etab. Hala ere, ez ginateke koherenteak izango programarekin, horren gaineko neurririk hartuko ez bagenu. Izan ere, galdera hau planteatu behar diogu geure buruari: Zer egiten dute eta zer ari dira ikusten (eta, beraz, normaltzat hartzen) gure seme-alabak Jaibusak herri batean utzi eta bueltakoa hartzen duten arte? Hori da kontua. Egia da ibilbidean ezer ez zaiela gertatuko ziurtaturik daukagula, baina... Zer gertatzen da parrandan ematen duten ordu horietan guztietan? (kontua are larriagoa da 14, 15 edo 16 urte bitarteko adinekoen kasuan). Argi dago ezin dugula beste aldera begiratu.

Horregatik guztiagatik, aurten 16 urtetik beherakoek ezin izango dute Jaibusa erabili, eta, beraz, familiek hartu beharko dituzte beren gain ibilbideak, seme-alabak festetara joan daitezen.

16 eta 18 urte bitarteko gazteek bakarrik egin ditzakete Jaibusen txartelak, eta horretarako familiaren baimena beharko dute.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675
Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde

fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Kolaboratzailea:
Miren Arregi Olivenza
Rebeka Mendoza
Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin
Garbiñe Petriati Ijurra

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Geroa Baiko zinegotziak aurrekontuaren aldeko botoa ematen.

la 8 milioi euroko aurrekontua

Geroa Bairen aldeko botoekin eta EH Bilduren kontrakoekin onartu zen 7.974.720,89 euroko aurrekontua herenegun, udala, Aita Barandiaran adinduen egoitza eta Musika eta Dantza eskola hartzen dituena. Udalak tasak eta zergak% 2,2 igo ditu.

ALTSASU

Altsasuko Udalak aurrekontuak onartu ditu. Javier Ollo Martinez alkateak berak azaldu zuenez, "urteko bigarren seihilekoan hainbat inbertsio eginen dira, eta inbertsio horiek ezin dira bertan sartu onartzeko momentuan". Aurrekontuan jasoak ez dauden inbertsioak dira: urteko asfaltatze-plana, baso-lanen garapena, parte-hartze aurrekontuak, Zumalakarregi plazaren ondoan ibilgailuen aparkaleku publiko bat egitea, udako igerilekuetan dauden gorabeherak konpontzeko beharrezko lanak, pintatze-lanak Zelandi eskolako lehen solairuan edo Alde Zaharreko herri-argiteria berritzea.

Udalak urte erdirako kontratua eginen die zortzi langabeturi. Horretarako, 38.430,00 euroko diru-laguntza jasoko du. Bestetik, Ollok aurreratu zuen udalaren hitzarmen kolektibo berria lantzen hasi direla, "gure langileen lan-baldintzetan aldaketak edo hobekuntzak sartzeko". Hitzarmen kolektibo horretan sartu nahi dituzte haur eskolako hezitzaileak eta garbitzaileak ere. Haur-eskolen egungo hezkuntza izaera gogorarazi zuen alkateak eta Hezkuntza Departamentuari hezkuntza-zerbitzu horren kudeaketa bere gain hartzea eskatu zion.

Inbertsioak

Udalak aurten eginen duen inbertsio handiena Ibarrea industrialdean eginen du: 400.000 euro. Joan den urtean hasitako lanei segida eta akabera emanen die eta, horrela, industrialdeko hondakin-urak bideratzeko sarea jarriko da. Lan horietarako Nafarroako Gobernuak 250.000 euro emanen dizkio udalari. Inbertsioen ataleko 80.000 euro Zelandi eskola publikoko teilatuaren zati bat berritzera bideratuko du. Udalak % 65eko diru-laguntza jasotzeko eskaera egina du dagoeneko. Geroa Bai eta EH Bilduko udal ordezkariak Hezkuntza Departamentuarekin kexu azaldu ziren, ikastetxeetan inbertsioak berak egin behar lituzkeelako eta ez udalak.

19.000 EUROTAN TXIKITU DA ALTSASUKO UDALAREN HERRI-ARGITERIAREN GASTUA LEDEKIN

Altsasuko Udalak, eraikinetan inguratzaileak birgaitzeko jarduketak egitea sustatzeko, Eskuhartze Globaleko lehen Plana idazteko 3.000 euro bideratu ditu. Planak aurreikusten du udalak diru-laguntzak emanen dituela eta, horretarako, 25.000 euro bereizi ditu. Hirigintza arloari dagokionez, alkateak aurreratu zuen Isasia industrialdearen plan partziala aldatuko dutela, industrialde hori zaindu eta mantentzearen ardura udalak izanen duela zehazteko, hura garatu zuen sozietateak ez baitu egin. Ollok nabarmendu zuenez, "herri-argiteria zerbitzurik ez duen industrialde bat izatea anomalia nabarmena da".

Egitasmo gehiago

Udaletxea birmoldatu eginen da. Zehazki, bulegoak berritu, udaletxeari erantsitako lokalean Udaltzaingoaren aldagela jarriko da eta beheko solairuan artxibo berria eginen da, egungo eraikinaren atzealdea okupatuz. Lan horien erredakziorako 17.424 euro daude aurrekontuan. Altsasuko espazio publiko batean pergola bat jarri edo hura estaliko duen instalazio finko bat egiteko proiektua idatziko da aurten. Horretarako, 16.940 euro daude. EH Bilduk aurkeztutako emendakina atzera bota zen, baina asmo berarekin Geroa Baik aurkeztutakoa onartu zen. Koalizioak 45.000 euro jartzea eta parte-hartze prozesu baten bidez garatzea eskatu du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 46 altsasuar elkarrizketatu zituen 2019an herriko materia gabeko ondarea jasotzeko. Udalaren 16.085,74 eurorekin elkarrizketen azterketa, indexazioa, aurkezpena eta proiektuaren ematea eginen dira. Bestetik, Udaleko Memoria Historikoaren eta Bizikidetzaren Batzordean plan bat egiteko proposamena laster aurkeztuko da, "gure udalerriari bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko esparru iraunkorra emanen diona, eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bat eskuratu ahal izanen duena". Batzorde horren baitan ere, Gerra Zibilean, gerraostean eta diktaduran Altsasun emakumeak izan duen figurari buruzko azterketa bat finantzatzeko diru-saila sartu da, EH Bilduk horretarako emendakina aurkeztu zuen.

Ez-adostasuna

EH Bilduk aurrekontuen kontrako botoa eman zuen. Javier Paz Miño bozeramaileak esan zuenez, aurrekontuen proposamena "hutsa eta ekimenik gabea" zela adierazi zuen. Gaineratu zuenez, "jasotako ekimen bakarrak EH Bilduk egin dituenak dira, nahiz eta Geroa Baik bereak balira bezala pasarazi (antolaketa-azterlana, udaletxearen eraberritzea, pergola, aparte baztertu dituzten gure zuzenketa guztiak)". Pazek azaldu zuenez, "alkatetzaren zirriborroa eta azken lau urteetako aurrekontuen bilakaera aztertu ditugu, eta horren emaitza dira aurkeztutako zuzenketak". Pazek "alkatetzak udal-gaiak kudeatzeko duen modu pertsonalista" salatu zuen. Udal erabakietan herritarren parte hartzea defendatu zuen, baita merkataritzari buruzko sektore mahaia osatzea eta isunen bidezko diru-bilketa udalak kudeatzea ere.

+www.guaixe.eus

Inbertsioak

- **25.000** Lorategi eta mendietarako makineria.
- **23.000** Kaleak konpondu.
- **18.150** Udalaren antolakuntza azterlana egin.
- **18.000** Azienda feria.
- **15.000** Bideak mantendu.
- **10.000** Azoketarako standak.
- **7.000** Hiri-altzariak berritu.
- **7.000** Garabia-zerbitzua.
- **5.750** Gazteria Zerbitzurako ekipamendua.
- **5.000** Dantzalekuko igerilekuetan obrak egiteko proiektua idaztea.
- **5.000** Isasia industrialdeko herri-argiteriaren egoerari buruzko azterlana idatzi.
- **4.000** Ekintzailetzarako laguntzak.
- **3.900** Kamioien aparkalekuan segurtasun kamerak jartzea.
- **3.715** Zelandi eskolan suteen kontrako sistema berria jartzea.
- **3.675** Pilotajaukuko udal biltegian intrusioaren eta suteen aurkako sistema jartzea 3.675 euro.
- **2.500** Alde Zaharrean argiteria publikoa berritzeko proiektua idatzi.
- **2.000** Mendi eta Ingurumen Batzordearen jarduerak.

Haur eskolak familien eta udalen babes bila

0-3 urteko zikloan taldeen ratioak jaistea eta langileen soldatak igotzea aldarrikatzen dute. Kontzentrazioak deszentralizatu dituzte eta aurreko ostegunean egin zuten aurrena Altsasun; gehiago izanen dira

SAKANA

Nafarroako 0-3 plataformak haur eskoletako ratioak jaistea eta langileen soldatak igotzea aldarrikatzen du. Nafarroan barna kontzentrazioak deitu dituzte. . Plataformako kide den Eider Gardek azaldu duenez, "gure helburua da familiak eta udalak gurekin bat egitea aldarrikapen hauetan". Horretarako, plataformako kideak Nafarroan udalekin eta familiekin lanketak egiten hasi dira.

Gardek azaldu digunez, duela hiru aste Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden alderdiekin bilerak izan zituzten, haiekin biltzeari uko egin zion Navarra Sumak. Nafarroako aurrekontuak direla eta gobernuak eta EH Bilduk adostutako akordioan 0-3ren finantzaketarako 600.000 euro gehitzen dira. "Plataformak EH Bilduri eskatu dio diru hori nora joanen den argitzeko. PSNk bere programan zikloaren doakotasuna jasoa zuen, horrekin ados gaude. Baina beldur gara 600.000 euro horiek doakotasunean sartzea eta ez gure aldarrikapenetan. EH Bilduri proposatu diogu diru hori zertara bideratu". Gardek azaldu digunez, badakite mugimenduak daudela."Gaur dugu bilera eta jakinen dugu mugimendurik izan den".

Altsasun martxoaren 12an kontzentrazioa eginen da, 18:00etan.

Udalak

Gardek azaldu duenez, gero eta eskola gehiago batu zaizkie eta jendeak kontzentrazioetara joanez erantzuten du. "Guk argi dugu arduradun bakarra Hezkuntza Departamentua dela, eta beraiek hartu beharko dutela erantzukizuna". Gardek gaineratu duenez, "udalak ere kaltetuak dira. Hasteko, iruzurra egin zitzaien, sekulako eskainatza izango zela esanez eta pozoidun goxokia eman zitzaien. Gero ikusi da udal askok ezin dutela ekonomikoki jasan haur eskola baten gastua, eta Nafarroako Gobernuak ez duela finantzaketa bermatzen. Hitzarmen bidez finantzatzen dira eta dirua ikasturtea bukatutakoan jasotzen dute. Hau da, udalak dirutza aurreratu behar duela".

Carlos Gimeno Gurpegi hezkuntza kontseilariak esan zuen aurten udalei % 1eko deskontua eginen zaiela beraien ekonomia-ekarpenean. "Gure lanketa udalekin hortik abiatu da. Nafarroako Gobernuak esaten du udalek finantzaketaren % 25 ordaintzen dutela eta aurten % 24 izanen dela. Hori ez da egia. Zeren Hezkuntza Departamentuak bere egiten ez dituen gastu guztiak udalak pagatzen ditu". Horregatik, "udalekin finantzaketa egitura zein den ikusteko lanketa egin dugu, aldarrikapenak egin ditzaten".

Plataformak udalei dagozkien aldarrikapenekin txostena prestatuko du, udaletan aurkezteko. Baita haur eskola ez duten udaletan ere. Azaldu duenez, udal batzuk diru-laguntza ematen dute eta beste batzuk ez. **+guaixe.eus**

Udazkenean duintasun martxa egin zen.

Espetxetik ateratzeko hiru eguneko baimena

Jokinek eta Oihanek jaso dute espetxeko tratamendu batzordearen oniritzia. Beste hiru zain

ALTSASU

Altsasu Gurasoak taldeko kideek ostiraleko kontzentrazioan jakinarazi zutenez, Altsasuko auziagatik Zaballan preso dauden Jokinek (8 urte eta erdiko zigorra, 1.202 egun preso) eta Oihanek (9 urte eta erdiko zigorra, 1.202 egun preso) kartzelatik hiru egun ateratzeko baimena jaso dute. Haiek bezainbat denbora preso daraman Adurrendako baimena aurki iristea espero dute gurasoek (8 urte eta erdiko zigorra, 1.202 egun preso). Halako baimenak emateaz espetxeko tratamendu batzordea arduratzen da.

Jon Anderrek eta Julenek (7 urte eta erdiko zigor bana, 668 egun preso) joan den astean bete zuten zigorraren laurdena, beraz, baimenak eskatzeko aukera dute. Berez, zigorraren laurdena 19 egun barru beteko dute, baina kalean zeudela epaitegira sinatzera joateagatik (hasieran astean bitan, 2018ko martxotik aurrera 15ean behin) eta pasaportea kentzeagatik zigor egunak kendu dizkiete. Bestetik, Aratz (4 urte eta 2 hilabeteko zigorra) eta Iñaki (3 urte eta erdiko zigorra) abenduaren 20tik zigorra 3. graduan betetzen ari dira. Ainarak urte eta erdiko espetxe zigorra etenda du eta bost urtetan deliturik egiten ez badu ez du bete beharko.

DUELA 25 URTE... 1995-02-28

Victor eta Agustin musean txapeldun

24 bikote neurtu ziren Etxarri Aranazko Xapatero tabernako mus txapelketan. Afaldu ondoren jokatzen ziren partidak. Finalean Victorek eta Agustinek Gorritxo eta Morori irabazi zieten eta kontsolazio finalean Iña eta Benitok Juan Bautistari eta Anderri irabazi zieten. Txapelketan aritu zen emakumezko bikote bakarrak (Amaia eta Garbiñe) saria jaso zuen.

WWW.ERRIGORA.EUS

Errigora dastatzeko aukera

Nafarroako Oliba olioarekin, arrozarekin, pastarekin eta kontserbekin egindako pintxo-pote berezia izanen da Etxarri Aranazko Xapatero, Leku Ona eta Derry tabernetan heldu den ostegunean, 19:00etatik aurrera. Errigorako produktuen eskaera martxoaren 12ra arte egin daiteke, herrietako ohiko tokietan edo www.errigora.eus web orriaren bidez.

Hemen dira Emakumeari buruzko Jardunaldiak

Antzerkia, tailerrak, pintura erakusketa, afaria eta manifestazioa daude antolatuta 27. edizioan

IRURTZUN

Irurtzungo emakume taldea, Irurtzungo eta Arakilgo Gazte Asanblada eta Irurtzungo Udalak elkarrekin antolatu dute XXVII. Emakumeari buruzko Jardunaldiak. More koloreko egitarauan gaur hutsik egiten ez dituztenak afaria eta Lorena Arangoaren ondorengo emanaldia dira. Martxoaren 7an, heldu den larunbatean, izanen dira. Afarirako izen ematea asteartera arte zabalik dago, Pikuxar, Fruitis denda edo Zabaleta harategian eman daiteke izena, 20 euro balio du.

Joan den urteko Martxoak 8.ARTXIBOA

Egitaraua

Otsailak 28, ostirala
- **20:30** Hortzemuga teatroren En sus zapatos antzezlana, kultur etxean.

Martxoaren 2tik 31ra
- Irurtzungo pintura tailerraren erakusketa Pikuxarren eta Tahonan.

Martxoak 6, ostirala
- **20:30** Maite Redinen Fotos, hormonas y lexatin antzezlana, kultur etxean.

Martxoak 7, larunbata
- **18:00** Genero problematika gainditzeko zenbait apunte. IAGA, kultur etxean.
- **22:00** Afaria eta Lorena Arangoaren emanaldia, eskolako jantokian.

Martxoak 8, igandea
- **12:00** Antolatu indarrak, batu borroka feministara leloa duen manifestazioa Foru plazatik
- **16:30** Iruñeko manifestaziora joateko hitzordua karpan.

Martxoak 11, asteazkena
- **18:00** Zinemara ateraldia, plazan.

+ www.guaixe.eus

Sexualitatearen irudi positiboa bideo bidez emateko erronka

Nola gozatu eta disfrutatzen duzu? Gozamenez film laburren lehiaketa antolatu da, 12 eta 25 urtekoendako

SAKANA

Batetik, sexualitateari buruz hausnartzea eta haren gainean ditugun ideia eta ikuspuntu desberdinak adieraztea. Bestetik, mezuak ikuspuntu positiboa, plurala, integratzailea eta irekia izatea, erredukzionismoetatik urrunduta. Azkenik, aniztasunean eta gozamenean zentratzea, bost zentzumenen, fantasien, ilusioen eta abarren bitartez pertsonen garapen globala bilatzeko. Helburuokin antolatu dute Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Gozamenezek.

Apirilaren 26ra arte aurkez daitezke lanak.

Lehiaketan 12 eta 25 urte arteko sakandarrek parte har dezakete, banaka edo taldeka egindako lanekin. Gehienez ere bi lan aurkez daitezke. Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea. Horretarako, Altsasuko Intxostiapunta gazte txokotik pasa daitezke martxoaren 18a baino lehen. Lanak aurkezteko epea apirilaren 26ra arte izanen da. Hori Intxostiapunta gazte gunean egin beharko da, 17:00etatik 20:30era, plika sistema erabiliz. Lanak 10 minutu baino gehiagoko iraupena ezin dute izan (krediuak barne). Lanik onenak gazteek emandako botoen bidez aukeratuko dira, maiatzaren 8tik 16ra. Sari banaketa maiatzaren 22an izanen da. Hiru sari emanen dira: banaka (70 euro), taldea (250 euro) eta publikoarena (100 euro).

Garalurren enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro

Cederna-Garalur elkarteak enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro emanen ditu dohainik hurrengo hilabetean. Aurrena, "Antolatu zure paperak Ogasunarekiko betebeharrak betetzeko" izenekoa, martxoaren 24an izanen da, asteartearekin, 09:30etik 13:30era. Atzena, berriz, "Nola burutu nire izapideak Ogasunarekin linean ziurtagiri digitala erabiliz" ikastaroa da eta martxoaren 31n eginen da, asteartearekin, ordutegi berean. Bi ikastaroak Arbizuko industrialdean dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Zentroan eginen dira.

Ikastaroei buruzko argibideak guztiak www.cederna.eu weborrian daude eskuragarri. Informazio gehiago behar duenak 619 328 264 telefono-zenbakira hots egin edo sakana.admon@cederna.es helbidera mezua bidali dezake (Oskia).

Joseba Beltran de Heredia Euskal Herriko Haurren Mailako Neguko Txapelketan, asteburuan, Irunen. UTZITAKOA

"Entrenatzen jarraitzeko motibatuagoa nago orain"

JOSEBA BELTRAN DE HEREDIA FERNANDEZ SAKANA IGERIKETA TALDEKO IGERILARIA

IGERIKETA Sakana Igeriketa Taldeko altsasuarra Euskal Herriko Haurren Mailako Neguko Txapelketan aritu zen asteburuan eta uste baino hobe aritu zela aitortu du

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Asteburuan Euskal Herriko Haurren Mailako Neguko Txapelketak jokatu ziren Irungo Azken Portu igerilekuetan. Bertan 30 igeriketa klub inguruko 200 igerilari baino gehiago lehiatu ziren, eta tartean Sakana Igeriketa Taldeko Joseba Beltran de Heredia Fernandez altsasuarra zegoen, Sakana Igeriketa Taldeko ordezkari bakarra. Lan ona eginda, esperientzia oso ona izan dela aitortu du eta igeriketan jarraitzeko asmoa berretsi du.

Sakana Igeriketa Eskolan trebatzen zara?

Bai, 60 neska-mutiko inguru trebatzen gara, gutxi gorabehera, Sakana Igeriketa Eskolan. Mikel Galan da gure monitorea; oso irakasle ona da. Altsasuko Zelandi igerilekuetan entrenatzen dugu. Ni haurren mailan aritzen naiz.

"EUSKAL HERRIKOAN ARITZEKO MINIMOA NAFARROAKO TXAPELKETAN LORTU NUEN, OTSAILAREN 8AN"

Besteak beste krol edo estilo librea, bularra, tximeleta, bizkarra, erreleboak... dira dauden igeriketa estiloak. Guztiak lantzen dituzu?

Bai, guztietan aritzen naiz, baina hobekien tximeletan aritzen naiz.

Esaten dute tximeleta gogorrena dela...

Beno... entrenatzen duzunaren arabera, baina nik gustuko dut tximeleta.

Zenbat entrenatzen duzu?

Astean lau egun, egunero bi ordu. 19:30etik 21:30ak arte entrenatzen dugu Sakanako Igeriketa Taldekoekin, eta batzuetan nire kabuz joaten naiz. Azterketekin nagoenean gogorra egiten zait, baina, bestela, ez. Oso ondo pasatzen dugu.

Normalean zein lehiaketa edo probatan aritzen zarete?

Nafarroako Igeriketa Federazioak antolatzen dituenetan, Nafarroako Txapelketetan, Nafar Kirol Jolasetan. Joan den urtean txapelketako proba bat Altsasun jokatu zen, eta aurten ere jokatuko da. Eta asteburuan Euskal Herriko Haurren Mailako Neguko Txapelketetan aritu nintzen, Irunen.

Eta bertan aritzeko probaren bat egin behar izan zenuen aurretik?

Denbora gutxieneko batzuk, marka batzuk egin behar dira bertara sailkatzeko. Nik otsailaren 8an jokatutako Nafarroako Txapelketan lortu nuen gutxieneko hori, 400 m libreetan. Horretarako asko entrenatu nuen, eta Mikel irakasleak ongi entrenatzen asko lagundu ninduen.

Euskal Herriko Neguko Txapelketan zein modalitatetan aritu zara?

100 m krol edo estilo librean, 100 m tximeletan eta 200 m tximeletan. Gu aritzen garen Nafarroako ohiko txapelketekin alderatuta, aldaketa asko nabaritu nuen, maila gehiago. Nafarroan tarteka 10 lehenengoen artean egoten naiz, baina Euskal Herriko Txapelketan ongi ibili nintzen, espero baino hobe. Nire adineko igerilariekin alderatuta, batzuetan laugarrena, bigarrena ere ibili nintzen. Egia esan, gehiago entrenatu dut, eta nabaritu da.

Zein denbora egin zenituen?

100 m estilo librean edo krolean 1:02 minutuko denbora egin nuen, eta uste dut 18. postuan sailkatu nintzela. 100 m tximeletan 1:10 minutuko denbora egin nuen, sailkapen orokorrean 10. postuan. Eta 200 m tximeleta uste dut egin nuela 2:28 edo 2:35 minututan, halakoren bat. Egia esan, kontentu nago egindako lanarekin. Pentsatzen nuen okerrago ibili behar nintzela. Presioa banuen, urduritasun puntu hori, baina gero ongi moldatu nintzen eta egindakoarekin gustura.

"SAKANA IGERIKETA ESKOLAN 60 NESKA-MUTIKO INGURU TREBATZEN GARA MIKEL GALANEKIN"

Hortaz, balorazio positiboa egiten duzu.

Bai, pozik nago egindakoarekin. Esperientzia honek erakutsi dit asko entrenatu beharra dagoela maila hau izateko, gainontzeko igerilariei jarraitzeko, eta aldaketa handia dela. Esperientzia oso ona izan da, oso ongi pasatu nuen.

Beraz, gehiago entrenatzen jarraitzeko motibatuta etorri zara.

Bai. Igeriketa gustuko dut, taldeko gainontzeko kideekin entrenatzen oso ongi pasatzen dut, lagunak gara, giro oso ona dago taldean eta entrenatzeko gogoz nago.

Zein da zure hurrengo erronka?

Nafarroako Txapelketan eta bertako probetan jarraitzeaz gain, atzera ere Euskal Herriko Haurren Mailako Txapelketan arituko naiz, baina kasu honetan ekaina bukaera aldera jokatuko den Udako Txapelketan. Badakigu maila handia dagoela bertan eta gure taldea, Sakana Igeriketa Taldea, xumea dela, baina gogoa ez dugu faltan.

Espainiako Txapelketetan aritzeko eskatzen dituzten markak edo gutxienekoak urruti ikusten dituzu?

Bai, oso urruti.

Zein da zure idoloa igeriketan?

Mireia Belmonte. Gustatzen zait nola egiten duen igeri, bere estiloa, eta horretaz gain bere izaera eta nortasuna.

Michael Phelps, Ian Thorpe... eta halako puntako kirolariak erretiroa hartzen dutenean egoera berrira ezin kokatu egoten direla uste duzu?

Izan daiteke. Ahal duten guztia entrenatu dute eta adinagatik ezin dute gehiago hobetu. Gogorra egingo zaie.

Sakana Igeriketa Kluba Nafarroa mailan nola kokatuko zenuke?

Nafarroan igeriketa talderik onena Amaya da. Talde handia da, 200 igerilari inguru izango dituzte. Lagunak taldea ere ona da. Sakana Igeriketa Taldea, gure kluba, txikia da, eta Nafarroan erdialdean edo egongo gara kokatuta.

Horrenbeste denbora igeri egiten duzuenok, azalean arazorik izaten dituzue?

Nik azkura asko izaten dut eta krema hidratatzaile asko bota behar izaten dut.

Zorte asko Joseba, datozen probetarako!

Eskerrik asko!

Erregionala: Altsasuk berdindu eta irabazi

FUTBOLA Emakumezkoen Altsasu taldeak irabazi egin zuen eta gizonezkoen Altsasuk berdindu

Emakumezkoen erregional mailan Altsasuk Lekunberrin jokatu zuen, Beti Kozkor taldearen kontra. Partida Altsasuren alde jarri zen berehala, Eider Vicentek 8.minutuan sartutako golari esker, eta 2. zatian atzera ere Eider Vicente izan zen Beti Kozkorren atea zulatu zuena. Horrela, 0 eta 2 irabazi zuen Altsasuk.

Castejon da liderra (56 puntu) eta Altsasuk 6. postuan jarraitzen du (36 puntu). Larunbatean Altsasuk 13 punturekin sailkapenean 14. postuan dagoen Universidad de Navarra taldea hartuko du Dantzalekun, (15:45).

Gizonezkoen erregional mailan, ez zegoen jardunaldirik, baina Altsasuk asteburu honetan jokatu beharrekoa aurreratu egin zuen eta Liceo Monjardin izan zuen aurkari Dantzalekun. Liceo aurreratu zen, eta Altsasuk bina berdintzea lortu zuen Patxik eta Kennethek sartutako golei esker.

Bestalde, preferente mailan aurreko astean ez zen jardunaldirik jokatu, inauteriengatik, baina liga bueltan da. Donezteberen kontra lehiatuko da Lagun Artea bihar, larunbata, 18:00etan, Donezteben. Eta bihar ere, Etxarri Aranatz Huarteren kontra ariko da Aretan, 19:00etan. Ea puntuak ekartzen dituzten.

Sakandarrak ongi Bianako Duatloian

DUATLOIA Sergio Garcia de Eulate 12. (eta beteranoen mailan 1.) sailkatu zen Distantzia Erdiko Proban. Francisco Javier Gomez beterano 2. mailako txapelduna izan zen Distantzia laburrean

Igandean VI. Bianako Printzerria Duatloia jokatu zen eta ongi aritu ziren sakandarrak. Distantzia Erdian –10 km korrika, 70 km bizikletan eta 10 km korrika– ANB Triathlon Team Portugalete taldeko Gonzalo Fuentes izan zen azkarrena 88 partaideen artean (3:03:52). Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 12. postuan sartu zen, 23 minutura (3:26:05) eta beteranoen 1 mailako txapelduna eta Nafarroako Distantzia Erdiko Txapelduna izan zen. eta Felix Benjumea altsasuarra ere ongi ibili zen, 25. postuan gurutzatu baitzuen helmuga (3:33:07). Xabier Gonzalez sakandarra berria da duatloian baina ongi ekin dio bideari, 44. postuan sartu baitzen (3:47:05).

Distantzia Laburrean –5 km korrika, 35 km bizikletan eta 5 km korrika– 144 duatleta aritu ziren eta Ascentium Arabatri taldeko Iker Ortiz de Zaratek irabazi zuen (1:33:56), ordu eta erdi lanean aritu eta gero. Francisco Javier "Pitxi" Gomez altsasuarra 35. tokian sartu zen eta bere kategoriako txapelduna izan zen, beteranoen 2 mailan (1:45:10). Juan Carlos Gomez 53. postuan sailkatu zen (1:48:03). Mikel Astiz ihabardarrak erretiratu egin behar izan zuen.

Gonzalez, Garcia de Eulate eta Gomezdarrak Bianan. SAKANA TRIATLOI TALDEA

Nagusien probez gain, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak ziren probak jokatu ziren Bianan, eta gizonezkoen benjaminen mailan Sakana Triatloi Taldeko Unax Mazkiaran laugarrena sailkatu zen.

Arbizuko eta Altsasuko Duatloietan izena ematea zabalik

Martxoaren 21ean Arbizuko XXV. Duatloia jokatuko da, aldi berean Nafarroako Duatloi Motzeko Txapelketa izango dena, 15:30ean. Martxoaren 28an goizeko 10:30ean kategoria txikiendako Altsasuko Duatloia jokatuko da eta arratsaldeko 15:45ean, aldiz, helduendako X. Altsasuko Duatloia. Bi probetarako izena ematea zabalik dago Nafarroako Triatloi Federazioko web gunean –www.navarratriatlon.com–.

Txirrindulari afizionatuak lanera

Bihar hasiko da txirrindularitza afizionatuen euskal egutegia, Zumaian (10:00). Aurten amateurren 38 lasterketa jokatuko dira Euskal Herrian, horietatik bat Iturmendin, uztailaren 16an, eta bestea Altsasun, irailaren 15ean.

Nafarroako Kirol Jolasetako finalak gaur Irurtzunen

PILOTA Lehen faseko finalak gaur jokatuko dira, 18:00etan, Irurtzunen, eta bihar, 10:00etan, Labriten

Nafar Kirol Jolasen Pilota Txapelketako lehen faseko finalak gaur eta bihar jokatuko dira, Irurtzunen eta Labriten.

Gaur, ostirala, Irurtzunen, 5 final jokatuko dira guztira, 18:00etatik aurrera, Biaizpe pilotalekuan. Tartean, benjaminen 2. mailako finalean, Irurtzun D taldeko Gurmindo eta Sarasibar Irurtzun C taldeko Rubioren eta Iraurgiren kontra ariko dira. Beste partidei dagokienez, kimuen 3. mailan Atarrabia C taldeko Otaegik eta Garaialdek San Miguel I. Taldeko Pascual eta Larraioz izanen dituzte aurkari, kimuen 2. mailako finalean Barañain taldeko Bengoetxea eta Antimasberes Ultzamako Iribarrenen eta Iturralderen aurka ariko dira; haurren 3. mailako finalean Txarutako Esandik eta Alonsok San Francisco Javierreko Perez eta Ena izanen dituzte aurkari eta 2. mailako haurren mailako finalean Huarte A taldeko Armendariz eta Jimenez Aurrera A taldeko Sagastibeltzaren eta Ugartemendiaren kontra ariko dira.

Bihar, larunbata, goizeko 10:00etatik aurrera Iruñeko Labritek gainontzeko finalak hartuko ditu, 4 final guztira. Partaideen artean ez dago sakandarrik.



Lucas Larrazari agur

ATLETISMOA Lucas Larraza korrikalari ohi bakaikuarra aurreko asteko ostegunean zendu zen, 91 urte zituela. Larrazak lautan irabazi zuen Juan Mugerza Memoriala, eta Munduko Kopan hiru aldiz aritu zen, 1955an Donostian, 1956an Belfasten eta 1957an Waregemen. 2016ko Aitzkozar Krosean omenaldi polita egin zioten. **+www.guaixe.eus**

Gernikak burua tente esan dio agur EuroCupari

SASKIBALOIA Asteazkenean EuroCupeko final zortzirenetako itzulerako partidan 72 eta 50 irabazi zion Valencia Basket taldeak Naiara Diez kapitain altsasuarraren Lointek Gernikari. Liga eta Erreginaren Kopa dira taldearen hurrengo erronkak

Asteazkenean EuroCupeko final zortzirenetako itzulerako partida jokatu zuten Naiara Diez kapitain altsasuarraren Lointek Gernika Bizkaiak eta Valencia Basketek. Aurreko asteko joaneko partidan 10 puntuko aldearekin gailendu ziren valentziarrak eta egoerari buelta emateko balentria galanta egin beharra zuen talde bizkaitarrak.

Lehen laurdenean oso ongi aritu ziren Mario Lopezen neskak. Defentsa ona eta erasoa tartekatu zituzten eta 12 eta 19 jarri ziren aurretik. Bigarren laurdenean intentsitate handiarekin jarraitu zuen partidak eta 29 eta 31 bukatu zuten, sentsazio positiboekin. Hirugarren laurdenaren hasieran ongi eutsi zioten gernikarrek, baina valentziarren bonbardaketa hasi zen, Buchen hirukoekin, eta Valencia 49 eta 42 aurreratu zen.

Oraindik zabalik zegoen partida, baina miraria behar zuten gernikarrek, eta, tamalez, azken laurdenean behera egin zuten. Joaneko partidan bezala, azken txanpan gasolinarik gabe geratu ziren. Valentziako Buch jokalariak bere onetik atera zituen gernikarrak, azkar eta ikusgarri mugitu eta saskiratze bikainak egin baitzituen. Azkenean, 72 eta 50 galdu zuen azken laurdenean desgastatu egin zen Lointek Gernikak. Datu bat ematearren, hirukoetan 21 jaurtiketetatik 11 saskiratu zituen Valentziak eta Lointek Gernikak, aldiz, 15 jaurtiketetatik soilik bakarra saskiratu zuen.

Hala ere, burua tente esan dio agur Gernikak EuroCupari, historia egin baitu. Orain Espainiako Emakumezkoen Endesa Liga eta martxoaren 5etik 8ra Salamancan jokatuko den Espainiako Kopa dira talde bizkaitarraren hurrengo erronkak. Ligako sailkapenean 3. postuan dago Gernika, Perfumerias Avenidaren eta Gironaren atzetik, eta bihar, larunbata, Duran taldearen kontra ariko da, Lugon (19:00).

Beñat Katarainek 2:28:02an osatu zuen Sevillako maratoia

ATLETISMOA 10.293 korrikalarien artean 89. postuan sailkatu zen korrikalari lakuntzarra

Beñat Katarainek asfaltoan mendian bezain ongi moldatzen dela erakutsi du, igandean Sevillan jokatutako maratoian bikain aritu baitzen. Mekuant Ayenew etiopiarrak errekorra apurtu zuen, 42,197 kilometroak 2 ordu, 4 minutu eta 46 segundotan egin eta gero, eta emakumezkoetan ere errekorra hautsi zuen Juliet Chekwe ugandarrak (2:23:14). Beñat Katarain Razkin 89. postuan sartu zen (2:28:02 denbora ofiziala, 2:27:59, denbora erreala). Zegaman bizi den lakuntzarra Goierri Garaia Taldearekin lehiatu zen, eta aitortu duenez, 2:28ren bueltan egotea espero zuen. Beraz, helburua gaindituta, kontentu dago. Beroa egiten zuen Sevillan "nire gusturako 2 gradu bero", baina maratoia ondo planteatu eta hasieratik "ondo neurtu" zuela gaineratu du.

Katarainen hurrengo erronka Espainiako Mendi Lasterketen Kopa da; lehendabiziko proba martxoaren 29an jokatuko da, Los Tajos Skyrace, Malagan.

Katarain, Sevillan. NAGORE GORROTXATEGI

ARETO FUTBOLA

Gaur El Pozo hartuko du Osasuna Magnak

Aurreko larunbatean Osasuna Magna Xotak hiruna berdindu zuen Valdepeñasen kontra. Lehen mailako liderra Movistar Inter da (53 puntu) eta Osasuna Magna 6. postuan dago (36 puntu). Gaur, ostirala, talde berdeak 44 punturekin sailkapenean 4. postuan dagoen El Pozo Murcia talde ahaltsua hartuko du Anaitasunan, 20:30ean (LigaSportsTV).

Kitto kintoak!

UHARTE ARAKIL - REBEKA MENDOZA

LAKUNTZA

ARBIZU

ETXARRI ARANATZ

ARBIZU - MIREN ARREGI OLIVENZA

Mozorro segida

Mozorro egunak izan dira aste honetakoak Sakanan. Baina oraindik ase ez denik baldin bada Hiriberrin, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian du aukera larunbatean.

BAKAIKU

URDIAIN



IRURTZUN

LAKUNTZA - JONE ARETA

UNANU - MIREN ARREGI OLIVENZA

ALTSASU

ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI


ETXARRI ARANATZ

ITURMENDI

LAKUNTZA

UHARTE ARAKIL

LIZARRAGA - MIREN ARREGI

OLATZAGUTIA

ZIORDIA - UTZITAKOA

LIZARRAGABENGOA - UTZITAKOA

ARBIZU - MIREN ARREGI OLIVENZA

BAKAIKU

ALTSASU

ETXARRI ARANATZ

ITURMENDI

HIRIBERRI ARAKIL

AITTETARKO, ETA GEHIAGO

Hiriberriarrek mozorratzeko eguna izanen dute biharkoa

Txitera elkartean emanen diote hasiera aurtengo ihoteari hiriberriarrek. Eta inauteriei dagokien moduan eginen dute hori: jaten eta edaten. Izan ere, 11:30ean trikipoteoa izanen da Txitera elkartean. Trikitilarien doinuak animatuta eta gorputza tenplatu ondoren, elkarren indarrak neurtzeko hiriberriarrek herri kirol saioa eginen dute. 14:30ean mahaiaren bueltan eseriko dira mozorrotuak, baina horren aurretik, 14:00etan, mozorrotuen talde argazkia eginen da.

Majo bazkaldu ondoren, Txitera elkarteak mus, pintxazo eta partxis txapelketak hartuko ditu. Gorputzak ariketa pixka bat egitea eskatzen dienean, mahaitik jaiki eta 19:30ean, 19:30ean, sokatira eta txapel jaurtiketa neurketak izanen dira. Ihotea despeditzeko garai bateko inauteriko pertsonaiari, aittettarkori, betiko akabera emanen diote: sua. Haren inguruan moxorroak ibiltzen ziren, eskuan erratza edota zigorra zutela eta jendea berotzen zuten. Gerta daiteke haietakoren bat agertzea.

URDIAIN

ALTSASU

ALTSASU

HIRI MOZORROEN TXANDA

Eguerditik aurrera, atzera ere, mozorrotuek Altsasu itxuraldatuko dute

Haurrak igandean lehenik, herri-ihotea asteartean ondoren eta, oraindik ere mozorro gosez daudenendako, hiri-ihoteak bihar. Mozorrotutako lagun kuadrillak eguerdiko poteora aterako dira. Beste asko eguerdirako iragarria dagoen Zangituko estropada banderarako. Eguerdikoaren ondoren, altsasuarrak bazkaltzera bilduko dira eta mozorro festak arratsalde-gau partean segida izanen du, ordu txikiak arte. Hiri-ihoteko ospakizunak direla eta, Altsasuko Udalak jakinarazi du Gartzia Ximenez kalea oinezkoendako izanen dela bihar, 12:00etatik 24:00etara.

LARUNBATA 29

HIRI-INAUTERIA

11:00 Haize Berriak bandarekin kalejira.
12:00 Zangituko estropadak. Zubeztia kalea.
13:00 Zangituko bandera ematea eta musika poteoa. Alde Zaharra.
17:00 Mozorrocall. Intxostiapunta.
18:00 Inauteri-segizioaren jaitsiera, Txorongo txarangak lagunduta. Intxostiapuntatik Foru plazara.
20:00-22:00 Abiba diskofesta. Foru plaza.
22:00-01:00 Gazte afaria, kuadrilla desfilea, jolasak eta festa. Intxostiapunta.
24:00-03:00 Abiba diskofesta. Foru plaza.

ALTSASU

UHARTE ARAKIL - REBEKA MENDOZA

OLATZAGUTIA

IRUDIMENA KALERA

Mozorrotuen segizioak hartuko du Olatzagutia

Ihote egutegia despeditzeko, olaztiarrek hiri-inauteria ospatuko dute bihar. Eguerdian dute mozorrotuek hitzordua areto futboleko pistaren ondoan. Handik abiatuko da herrian barna ihote giroa zabalduko duen kalejira. Mozorrotuen bazkariak eta dantzaldiak aukera ederra emanen diete olaztiarrei eta bisitariei parranda desberdina egiteko.

V. MOZORRO LEHIAKETA

14 urtetik gorako kuadrillak, taldeek eta pertsonek parte hartu dezakete mozorro-lehiaketan. Hori bai, bihar, 12:00etan izena eman beharko dute areto futboleko pistan egonen den zinegotzi arduradunari, mozorrotuen kalejira abiatu aurretik. Zinegotzi arduradunak bozketak apuntatzeko orri bat emango die parte-hartzaileei. Orri hori 14:00ak baino lehen eman beharko zaio zinegotziari botoen zenbaketa egin dezan; gehienez 20 puntu eman ahalko dizkie 3 talderi edo parte-hartzaileei eta nork bere buruari ezin dio botorik eman. Taldeen puntuazioarekin batera epaimahaia bi zinegotzik eta Festen Batzordeko kide batek osatuko dute. Sariak baloratzerakoan kontuan hartuko dituzte: originaltasuna, egindako lana, antzezpena eta mozorroaren osagarriak. Epaimahaiak bere erabakiaren berri 20:00etan emanen du, plazako dantzaldian. Hiru sari banatuko ditu: 150, 100 eta 50 eurokoak.

LARUNBATA 29

HIRI-INAUTERIA

12:00 Mozorro lehiaketarako izen ematea areto futboleko pistan. Ondoren, karrozen irteera.
14:30 Herri bazkaria, frontoian.
17:00-19:30 Los Pasai txaranga.
19:00-23:00 Dantzaldia Dj Raiztirekin.
20:00 Mozorro lehiaketako sari banaketa, dantzaldian.

OLATZAGUTIA

OLATZAGUTIA

ITURMENDI - REBEKA MENDOZA

ZIORDIA

HIRI-INAUTERIAREN TXANDA

Bihar, 13:00etatik aurrera, mozorro-jendea bihurtuko dira ziordiarrak

Duela bi aste herri-ihotea ospatu zuten ziordiarrek, joan den urtean berreskuratu zutena. Asteartean haurren mozorro eguna izan zen eta bihar, hiri-ihotea ospatuko dute. Lagun kuadrillak gaia hartu eta denak berdin mozorrotuko dira. Guztiak 13:00etan aterako dira kalera, hitzordu hori jarri baitute, mozorroak luzitzeko. Mozorro-poteoaren ondoren Errekakartea elkarteak ihote-bazkaria hartuko du. Mahaitik jasotzeko aitzakia arratsaldean ariko den diskojartzailearen musikak emanen die.

ETXARRI A.- REBEKA MENDOZA

ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI

IRURTZUN

LAKUNTZA - JONE ARETA

ARBIZU - MIREN ARREGI

BAKAIKU

ITURMENDI


LIZARRAGA - MIREN ARREGI


UHARTE ARAKIL - REBEKA

UNANU - MIREN ARREGI OLIVENZA

LIZARRAGA - MIREN

ALTSASU

URDIAIN

OLATZAGUTIA

ARBIZU - MIREN

UHARTE ARAKIL - REBEKA MENDOZA


LAKUNTZA

ARBIZU - REBEKA

UMANU - MIREN

IRURTZUN - UTZITAKOA

ETXARRI ARANATZ - REBEKA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

Hasta que la boda nos separe
Ostirala 28: 22:00.
Igandea 1: 19:30.

Adú
Osteguna 5: 19:00.

Mujeres del siglo XXI, zineforum-a
Osteguna 5: 19:00.

LAKUNTZA

KULTUR ETXEA

Musicos sin fronteras, dokumentala
Larunbata 29: 19:00.

OSTIRALA 28

ALTSASU **Udal Plan Orokorra egiteko sektoreko bilerak:** Ameztia.
10:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU **Udal Plan Orokorra egiteko sektoreko bilerak:** Zuntaipe.
12:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU **Gazte agenda. Mozorro prestaketa.**
17:00etan, Intxostiapuntan.

BAKAIKU ***Eskoletako eraikuntzarekin zer egin?* Bakaikuko Udalak deitutako batzarra.**
17:00etan, udaletxean.

ALTSASU **Martxoak 8.**
Antolatu indarrak, batu borroka feministara. Sakanako asanblada.
18:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU **Ipuinen unea:**
Izaskun Mujikaren *Ipuinez ipuin.*
19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA **Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.**
Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU **Altsasukoak aske kontzentrazioa.**
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN **Martxoak 8.**
En sus zapatos Hortzmuga konpainiaren antzezlana. Ondoren, UNRWAko kideekin solasaldia. Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
20:30ean, kultur etxean.

LARUNBATA 29

ALTSASU **Gazte agenda.**
Inauteri gala.
17:00etatik 01:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 1

ALTSASU **Barranka BTT taldea:**
Irañetako iturburura 55 km-tako ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ETXARRI ARANATZ **Martxoak 8.**
EIDABE antzerki taldearen *Mari eta galleta fabrika* antzezlanaren emanaldia. Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU **Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 2

ALTSASU **Pentsio duinen alde.**
Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

ASTEARTEA 3

ALTSASU **Literatur solasaldia Fernando Morillorekin.**
09:30ean, AEKren Itsasi euskaltegian.

ASTEAZKENA 4

ZIORDIA **Martxoak 8.**
Zu eta ni haurrendako ipuin saioa Dorleta Kortazarrekin.
18:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ **Hil aurretik jakin beharreko 10 gauza.**
Hizlaria: Mikel Idoate Izarra Tanatorioko kudeatzailea.
19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 5

OLAZTI ***Burundako Mandazainak* liburuaren aurkezpena.**
19:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ **Errigorako produktuekin prestatutako pintxopote berezia.**
19:00etan, Xapatero, Derry eta Leku Ona tabernetan.

ETXARRI ARANATZ **Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa.**
AEMren Kontzentrazioa.
19:30ean, plazan.

LAKUNTZA **Jokin Kale artistaren erretratuen erakusketa.**
Kale Txiki tabernan.

IRURTZUN **Irurtzungo pintura tailerraren *Estilo desberdinetatik ibilaldi bat* erakusketa.**
Martxoaren 2tik 31ra. Pikuxar euskal txokoan eta Tahonan.

TEA EN LA AZOTEA

ALTSASU **Tea en la azotea artistaren *El sueño de una noche de verano* trapuzko panpinen erakusketa.**
Martxoaren 4tik 27ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.

ZORION AGURRAK



Iraia
Zorionak Iraia! Primeran pasa zure egunean aitatxo, amatxo eta bereziki Egoiren partez!

Adei Lazkotz Senar
Zorionak Adei! Dauneko 7 urte! Guai arte bezein bixi, jator ta maitekor segi eta beita frontonien pilotari gogor ematen. Gurdikada muxu etxekuen partes.

Adei Lazkotz Senar
Lizarragako mutiko polittena, zue urtebetetzien milaka muxu Aitor eta Haizearen partetik. Tarta goxo-goxue prestatu!

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 28	Larunbata, 29	Igandea, 1	Astelehena, 2
Min. 5º	Min. 5º	Min. 3º	Min. 3º
Max. 17º	Max. 15º	Max. 12º	Max. 9º

ESKELA

Libe Mendia Goikoetxea

Gaurko ilunabar,
biharko egunsenti;
Sanmartinkaldeko
langaren bi aldeetan
umoretsu segi.

Urdiainen, 2020ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA

Gorka Larrea Ondarra

VIII. urteurrena

Ez dago hitzik deskribatzeko zenbat botatzen zaitugun faltan. Eguneko segundo bakoitzean gurekin zaude, gure oroimenean.
Eta beti izanen da horrela.

Maite zaitugu.

Ama, aita, Iker eta Erkuden

OROIGARRIA

Gorka Larrea Ondarra

VIII. Urteurrena

Urteak pasatu diren arren gaur,
atzo bezala, zure falta sentitzen dugu.
Hala ere, urakana igaro da dagoeneko
eta zure begien dirdira gogoratzeak
aurrera jarraitzeko indarra ematen digu.

Zure lagunak
Bakaiku

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburutan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuek deitu 651 472 721 tfnora.

LAN ESKAINTZA

Cederna-Garalur elkarteak egin du deialdia: Piriniorako turismo dinamizatzailea eta sustatzailea. Eskatzen da: turismo arloko prestakuntza, euskara jakitea (B2), eta gida-baimena izatea (B1). Baloratuko da: komunikazio, sare sozial edo turismoarekin loturiko prestakuntza, eta frantzesa eta ingelesa jakitea (B2). Eskaintzen da: lanaldi osoko kontratua. Dokumentazioa info@cederna.es helbidera bidali eta mezuaren izenburuan jarri "PIRINIOKO TURISMO DINAMIZATZAILEA". Argibide gehiagotarako: www.cederna.eu/eus webgunen edo 948 20 66 97 telefono-zenbakia.

HIGIEZINAK

ERRENTAN

Satrustegiko kontzejuko etxearen alokairua enkante pulikoan atera da: Lizitazio prezioa: 350 /hilabetean. Proposamenak aurkezteko epea: martxoak 7, Satrustegiko Kontzejuan.

Altsasun dugun bulegoa beste autonomo batzuekin partekatzeko prest dugu. Interesa baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554

LEHIAKETAK

Olaztiko inauteriko V. mozorro lehiaketa: Bihar, larunbata; gaia libre a eta 14 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea lehiaketaren egunean bertan, futbitoko pistan, eguerdiko 12:00etan. Oinarriak www.olazti.com webgunean.

12.elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa martxan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxeei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

GALDUTAKOAK/ OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Betaurreko graduatu urdin batzuk aurkitu ditut Etxarri Aranazko Aritzen ibilbidean. Beleixe irratian hartu edo deitu 948 567 074 tfnora 9:00etatik 12:00etara.

OHARRAK

Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpekide Txartela oparitzen die. Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte-mugikortasun programetarako sarbidea ere ematen du. Nazioarteko Aterpekide Txartela oparitan jaso nahi duenak www.juventudnavarra.es/eu/hasiera web gunearen bidez egin dezake eskaera.

Olatzagutiko irakurketa taldea: Santiago Lorenzoren "Los asquerosos" liburuaz hizketatzeko elkartuko da martxoaren 6an, ostiralean, 21:00etan liburutegian.

Sei elkarterako boluntarioak: Sei elkarteak bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartetan Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzetxearen eraikina zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitorpena egitean zati bat bueltatuko diote

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatuz egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

www.iragarkilaburrak.eus

OROIGARRIA

Gorka Larrea Ondarra

VIII. urteurrena

Egunero zaitugu
oroitzen,
uneoro zaitugu
sentitzen,

denbora aurrera
doan arren,
gure artean
zaitugu sentitzen.

Amiña Katalina, izeba Pilar, Koldo, Irene, Oihane eta Maitane
Arbizu-Bakaiku

EZKONTZAK

• **Julian Navarrete Cuevas eta Marleny Acevedo Garcia,** otsailaren 24an Irurtzunen

HERIOTZAK

• **Liberata Mendia Goikoetxea,** otsailaren 24an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!
948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»
BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2
948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza
"Betidanik"
948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

BAZTERRETIK

IRATI PELLLEJERO

Nola zaindu gure piercingak?

Perforazioak modan daude punk mugimenduaren ondorioz; gaur egun ospe handia du lirainago egiten gaituelako. Baina prozesuak bere arriskua dauka, kontu handia izan behar baitugu zauria ixterako orduan. Gainera prozesu hau luze egin daiteke eta pertsona bakoitzarentzat ezberdina bada ere, urte bat iraun dezake gutxi gorabehera.

AURPEGIKO PIERCINGen kasuan, belarrietan egitea toki tradizionalena eta hoberena da, lobuluan min gutxiago egiten du. Kartilagoan, aldiz, zikatrizazioa zaila da eta ilearekin kontaktuan egoteak infekzioa errazten du. Sudurrean eginez gero, hezetasuna dela eta infektatzea erraza da, eta kartilagoarekin arazoak egon daitezke. Bekainen kasuan, hau soilik alboan da gomendagarria, erdian nerbio eta odol basoak egotean arriskua handitzen da.

AHOKO PIERCINGAK delikatuagoak dira ahoan sortzen diren bakteriak direla eta. Honek infekzioa sor dezake lehen asteetan batez ere.

GORPUTZEKO PIERCINGen kasuan, zilborrean, lepoan eta titiburuan dira ohikoenak, hauek ahokoak bezain beste zaindu behar ditugu, arropa zabala emanez, makillajea eta lurrinak saihestuz.

INFEKZIORIK EZ EGOTEKO GOMENDIO BATZUK:

- Garbitasuna punturik garrantzitsuena da, belarritakoa ukitzeko orduan eskuak garbiak egon behar dira. Garbitzeko: Kotoi-zotz bat ur epelean eta xaboi neutroarekin busti, suero fisiologikoa (spray moduan bada hobe) eta gasa batekin lehortu. Bi edo hiru aldiz egunean.

- Piercinga egin ondoren, zarakarra ateratzea posiblea da, odol hori oso ondo garbitu behar dugu eta ez inoiz erauzi.

- Zer saihestu behar dugu? Solariuma, igerilekuak, denbora luzean zonaldeak bustirik egotea. Kontu handiarekin egin beharko dugu lo, hau ez ukitzeko. Bestalde, belarritakoa ezin da aldatu hau orbaindu edo zikatrizatu arte, sei hilabete gutxi gorabehera.

- Trikimailu txiki batzuk: ohean bidaiatzeko burkoarekin lo egin; ur epelarekin garbitu; bi astez gutxi gorabehera mototsa erabili; Blastoestimulina edo gainontzeko zikatrizatzeko kremak ez erabili, zuloa egin dizun pertsonak gomendatu ez badizu; eta ilea garbitzerakoan, belarria haize hotzarekin lehortu.

Musika tresnen doinua ez da inoiz amaitzen

Musicos sin fronteras Gobernuz Kanpoko Erakundearen dokumentala eskainiko dute bihar, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean. Besteak beste, GKE-ak musika tresna zaharrak gerra zonaldeetara eramaten ditu

LAKUNTZA

Siriako Gazte Banda Sinfonikoa sortu nahi du Musicos sin fronteras erakundeak. Horretarako, instrumentu zaharrak jasotzen dituzte eta Siria edo errefuxiatu eremuetara eramaten dituzte. 2018an banku handia egitea lortu zuten, eta tona bat tresna eraman zituzten Siriara. Egindako bidaia hori bideoz jaso zuten eta dokumental bat egin dute. Bihar, larunbata, 19:00etan, Musicos sin fronteras-en dokumentala proiektatuko dute Lakuntzako kultur etxean. Sarrerek 3 euroko prezioa dute, baina solidarioa da, hau da, jasotako guztia Gobernuz Kanpoko Erakundearendako izanen da.

Musicos sin fronteras GKEk jasotako musika tresnak. MEDICOS SIN FRONTERAS

Musicos sin fronteras GKEk hainbat jarduera solidario eginen ditu, horietako bat musika instrumentu bankua da. Euskal Herriko hiriburuetako musika eskolekin eta musika eskolen elkartearekin batera dagoeneko erabiltzen ez diren instrumentuak jasotzen dituzte, gatazkan dauden herrialdetara eramateko. Musikaren bidez gatazkan hezitako gazteak "gizaki aske eta autosufiziente" bizitzea lortu nahi dute. Gainera, Gobernuz Kanpoko Erakundearen bandak kontzertu solidarioak egiten ditu eta disko bat ere kaleratu dute. 2018. urtea garrantzitsua izan zen Musicos del mundo-rentzako, izan ere, instrumentuen bankua egiten hasi ziren eta tona bat musika tresna biltzea lortu zuten.

Odisea

Kontainerra Siriako errefuxiatuen esparruetara eraman zuten, gero han gazteen artean banatzeko eta musika ikasketak eman ahal izateko. Bidaia Alemaniatik, Iraketik, Kurdistanetik eta Siriatik egin zuten, eta erakundeak azaldu zuenez, "odisea" bat izan zen. Bidaian Gani Mirzo Siriako musikaria eta Fran Larsen musikaria eta artista egon ziren.

Pablo Toso eta Migue Rath argazki-kazetariak bidai horretan egon ziren eta dena kameraz jaso zuten eta irudiekin dokumentala egin dute: 'Regreso a Kobane. Desnterrar el sonido'. Dokumentalaren emanaldia izanen da bihar Lakuntzako kultur etxean, 19:00etan, eta laster Musicos sin fronteras-en egitasmoan parte hartzeko aukera izanen da Sakanan. Izan ere, musika tresnen bankua egin nahi dute ibarrean.

Martxoaren 8aren esentzia antzerkiaren bidez zabaltzen

Sakanako Mankomunitateko berdintasun zerbitzuak hainbat antzezlan antolatu ditu ibarrean zehar

SAKANA

Martxoaren 8aren harira hainbat ekimen antolatu ditu Sakanako Mankomunitateko berdintasun zerbitzuak, *Izan zirelako, jarraituko dugu* lelopean. Ekimenen artean emakumeak protagonista diren antzezlanak daude. Asteburu honetan adin guztietarako eskaintza izanen da, Irurtzundik Ziordira.

Gaur, ostirala, Irurtzungo kultur etxean, 20:30ean, Hortzmuga teatroa konpainiaren *En sus zapatos* antzezlana izanen da. Oihana Gallo San Romanek berdintasun teknikariak azaldu duenez, Palestinako emakume errefuxiatuen inguruko antzezlana da. Lekuak mugatuak dira, 40, ikusleek antzerkian parte hartzeko aukera izanen dutelako.

Etzi, igandea, EIDABE antzerki taldearen *Mari eta galleta fabrika* familiarteko antzezlana izanen da. Emakume langileen mugimenduari aitortza egiten dio lanak. 17:30ean izanen da, Etxarri Aranazko kultur etxean. Ziordian, martxoaren 4an, Dorleta Kortazar ipuin kontalaria izanen da haurrendako Zu eta ni ipuinarekin.

Larunbatean lehenengo finalaurrekoak jokatuko dira

Sakaña taldea Bardoak 2020ko finalaurrekoetara sailkatu da, eta Erriberan ariko da

SAKANA

Asteburuan abiatuko da Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoen fasea. Lehen fasetik sei talde pasa dira: Malerrekako Bertsonautak, Lesakako Arranopola, Leitzako Atekaberts komeni, Berako Lamixene, Barañaingo Hego haizea eta Sakaña sakandarrak. Finalaurrekoetan joan-itzuliko hiru kanporaketa jokatuko dira, eta bihar, larunbata, lehenengo saioak izanen dira.

Guztira sei saio jokatuko dira finalaurrekoetan, joaneko hiru eta itzuliko beste hiru. Saio horietan hiru finalistak zehaztuko dira.

Sakaña Leitzako Atekaberts komeni taldearen kontra ariko da Tuterako Beterri Peñan, 19:00etan. Doakoa izango da sarrera. Bihar jokatuko den beste saioa Anizen izango da eta Bertsonautak eta Arranopola taldeak aurrez aurre ariko dira. Anizko elkartean izanen da saioa, 19:00etan.

Victoria Alvarez Musetti.

"Pertsonala denean hobe konektatzen duzu"

VITORIA ALVAREZ MUSETTI IDAZLEA

Victoria Alvarez Musetti olaztiarrak idazlea izan nahi du. Nafarroako Unibertsitateko Sormenezko literatura eta idazketa graduko lehenengo promozioa izanen da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Artea, orokorrean, gustatzen zaio Victoria Alvarez Musettiri. Musikaren, pinturaren eta literaturaren artean ezin aukeratu ibili da, baina azkenean idazlea izan nahi duela erabaki zuen. Ametsa egi bihurtzeko gertu dago. Izan ere, Nafarroako Unibertsitateko sormenezko literatura eta idazketa ikasten ari da. Ikasketa oso berriak dira; are gehiago, Alvarezek datorren urtean amaituko du eta lehenengo promozioa izanen da.

Zertan datza Sormenezko literatura eta idazketa ikasketak?

Oso berria da. Ni lehenengo promoziokoa naiz. Idazleak izan nahi dutenendako, mundu editorialean lan egin nahi dutenendako edo literatura hertsia ikertu nahi dutenendako ere bideratuta dago.

"IDAZTEN, IDAZTEN IKASTEN DA ETA ASKO IDAZTEN DUGU; IRAKASLEEK LAGUNTZEN DIGUTE"

Zergatik erabaki zenuen ikasketa berri hau egitea?

Nafarroako Unibertsitatearen ate irekietara joan nintzen, baina ikasten ari nintzen institutuan antolatzen zutelako, ez unibertsitate horretara ikastera joan nahi nuelako. Gradu berri hau iragartzen ari ziren eta niretako zela ikusi nuen. Arte eszenikoen batxilergoa egiten ari nintzen, beraz, aurretik baneukan artearekiko zera hori.

Gradu hau ezagutu aurretik, zer ikasi nahi zenuen?

Gauza asko planteatu nituen. Musikaren fasetik pasatu nintzen; horregatik erabaki nuen arte eszenikoen batxilergoa egitea. Batxilergoan ikusi nuen antzerkia gustatzen zitzaidala. Nik ez dut antzezteko talenturik, baina berotu nintzen eta arte dramatikoa egitea pentsatu nuen. Are gehiago, institutuan probak egiteko prestatu nintzen. Baina gero ikasketa hauek ikusi nituen eta niretako zirela erabaki nuen.

Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Txikitatik egunerokoetan idazten nuen. Baina, egia esan, ez nituen bukatzen. Ez nuen idazle izatea planteatzen. Liburu bat idaztea oso zaila zela iruditzen zitzaidan. Baina gero ikasten ari nintzela, bigarren hezkuntzan, hizkuntza trebeziak deitutako irakasgaia zegoen eta bertan literatura eta sormenezko piezak sortu behar genituen. Hor jakin nuen idaztea benetan gustatzen zitzaidala, asko nuela ikasteko, baina gustatzen zitzaidala. Beste ikaskideekin konparatuz pixka bat nabarmentzen nintzen, eta konturatu nintzen agian ona nintzela. Batxilergoan antzezlan bat idazteko aukera izan nuen eta asko disfrutatu nuen. Gainera, narrazio laburretako lehiaketa batera aurkeztu nintzen klaserako sortutako lan batekin eta irabazi egin nuen.

Nola ikasten da idazle izaten?

1. eta 2. maila irakurtzeko dira. Lehenengo mailan gehien bat literatura ematen dugu, oinarrizkoena. Gero, antzinate klasikoaren literatura ere irakurri behar genituen, eta horiekin sormenezko proiektuak sortu. Narratiba eta nobelen analisiak ere egiten genituen. Sormenezko idazketa lantzen ari gara orain. Hasteko liburu baten egitura analizatzen dugu, eta gero guk nobela bat nola egin genezakeen aztertzen dugu. Ez dugu nobela idatzi behar, baina bai planteatu. Idazten idazten ikasten da eta asko idazten dugu. Idatzi ondoren irakasleek testu horiek irakurtzen dituzte eta zer dagoen ongi, zer gaizki eta nola hobetu dezakegun esaten digute..

"TALDEAN BAKOITZAK PERTSONALITATE BAT DU; SORTZEKO SENTSIBILITATE BEREZI BAT"

Zein aukera laboral ditu?

Galdera zaila da. Egia esan, sartu nintzenean ez nuen pentsatzen zertan lan egingo nuen. Sartu nintzen gustatzen zitzaidalako eta zerbait gustatzen zaizunean aukerak aterako dira. Gero konturatu nintzen aukera asko daudela. Ikerketa munduan lan egiteko aukera dago, editorial batean, idazle izatea...

Eta zuk zer bide hartu nahi duzu?

Oraintxe bertan antzerki konpainia batean praktikak egiten ari naiz eta obra baten adaptazioa egiten ari gara. Antzerkia egiten ari naiz, dramaturgia. Horrekin probatzen ari naiz eta oso pozik nago. Azkenean, aukerak sortzen direnean aprobetxatu behar dira.

Zerbait berezia behar da ikasketa hauek egiteko?

10 eta 15 lagun bitarteko taldeak gara. Irakasgaietan gauzak denen arten komentatzen eta eztabaidatzen ditugu eta nabaritzen da pertsonalitate asko eta desberdinak daudela. Bakoitzak dauka hausnartzeko modu bat, barneko mundu konplexua dugu, beste esparruetan agian pertsonalitateen arteko desberdintasun hori ez da hain handia. Bakoitzak pertsonalitate berezi bat du; sentsibilitate berezia.

'Introducción a la geometría' liburuan parte hartu duzu. Nola sortu zen parte hartzeko aukera?

Unibertsitatean gure artean elkarbanatzeko literatura aldizkari bat sortu nahi genuen. Instagramen kontu bat egin genuen eta editorial batek ikusi zuen eta liburua publikatzeko aukera eskaini zigun.

Nola izan zen sortze prozesua?

Figura geometrikoetan oinarritu behar ginen. Lerroan eta zirkuluan oinarritu behar genuen inspirazioa lortzeko. Alderdi pertsonalean oinarritu nintzen. Argazki baten markoa begiratzean sentitzen dena. Nire sormen prozesua esperientzia pertsonaletan oinarritzen da. Momentu bat aukeratu eta gauzak ateratzen dira. Lana ez da zertan oso originala izan. Baina oso zurea izan behar du. Kontraesankorra dirudien arren, barneko zerbait denean, pertsonala denean, jendearekin gehiago konektatzen duzu.

Zein genero nahiago duzu?

Hasieran narratiba gustatzen zitzaidan. Poesia ere egin dut, eta orain antzerkia egiten dut. Aurrera egiteko aukera eman dit.

Mikel Idoate Izarra ehorztetxearen kudeatzailea eta Garbiñe Petriati Sakanako langilea.

"Heriotza bizitzaren parte da"

Mikel Idoate Izarra ehorztetxearen kudeatzailea da. Garbiñe Petriati Sakanako langilea. Izarrak zerbitzu integrala eta gertukoa eskaintzen du. Baita heriotza eta dolua bezalako kontzeptuak ulertzeko hitzaldiak ere

Eneida Carreño M. ETXARRI ARANATZ

1 Zer da Izarra?
Ehorzketa zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa eta marka da. Baita bizitza-heriotza kontzeptua ulertzeko modu berri bat du ere.

2 Zein dira Izarraren balioak?
Gertutasuna, bertan errotua egotea, gardentasuna eta argitasuna.

3 Erroak bertan dituena, gertukoa... zer esan nahi du?
Tokian tokiko kultura, tradizioak eta hizkuntza errespetatu eta promozionatzen ditugula. Inguruan dagoenarekin lan egiten saiatzen gara, ekonomikoki eta sozialki errotuak egoteko, eta herriaren eta herritarren onurarako. Horretarako, bertako langileak, bazkideak eta hornitzaileak ditugu eta zergak bertan ordaintzen ditugu.

4 Izarran lan taldeari garrantzia ematen diozue?
Bai, noski. Enpresa baten izaera atzean dauden pertsonek osatzen dute. Zerbitzu ona, hurbila eta pertsonala eman nahi badugu, horretarako lan talde formatua, bizkorra eta hurbila behar dugu. Gaur egun multinazionalak dira nagusi sektorean eta gu, hemengo enpresa izanik, sozialki ardura berezia dugu. Horregatik, lan baldintza onak izatea da gure helburua. Gure zerbitzua 365 egunetan 24 ordukoa dela jakinik, kontziliazioari eta lan giroari garrantzi handia ematen diogu.

5 Bizi bitarteko zerbitzuak, hileta zerbitzuak eta hurrengo egunerako zerbitzuak...
Bai, zerbitzu integrala. Orain arte ehorzketa enpresek bakarrik hileta zerbitzua eskaintzen zuten. Guk argi dugu zerbitzua osoa izan behar duela. Horregatik bizi bitarteko zerbitzuak ditugu, doluan laguntza, formazioa, aseguruak, hil ondorako kontratua. Baita ondorengo zerbitzuak ere: beharrezko herentzia eta pentsioak tramitatzen dituen zerbitzua eta Izarra Fundazioak doluan laguntzeko zerbitzua.

6 Heriotza eta bizitza ulertzeko beste era bat: zergatik kostatzen zaigu hainbeste heriotzaz hitz egitea?
Heriotza ezezaguna egiten zaigu eta beldurra ematen digu. Baina, heriotza bizitzaren parte da eta naturaltasunez hartzea komeni da. Galera bat izatea zer den jakitea, samina zer eta zergatik sortzen den, dolu prozesua nolakoa den, gaiaz nola hitz egin... Hori guztia agertzea eta horretaz hausnartzea lagungarri izango da.

7 Uste zabaldua da hiltzea garestia dela...
Garestia... Izan daiteke. Enpresaren arabera garestiago oraindik. Ehorzketa zerbitzuek gastu finko handiak dituzte, urte osoko egun guztietan norbait dagoela zure etxean ordu erdian egoteko prest.

8 Izarran aukerak mugatuta daude sinesmen pertsonalengatik?
Ez. Gure goiburua hurbiltasuna eta pertsonalizazioa da. Hau da, bakoitzak bizi izan den tokian agurtzeko eta berak nahi duen bezala agurtzeko aukera izan behar du. Askotan familiak ez daki agurra nola egin, eta hor dago gure lana.

9 Enpresen ardura eta erantzukizun sozialaz asko hitz egiten da. Nola lantzen du hori Izarrak?
Garrantzitsuena, gure lana sozialaere badela. Pertsona bakoitzari zerbitzu duina, hurbila eta pertsonala ematen diogu. Beste hiru arlo nabarmenduko nituzke. Lehenengoa, enpresa errotua izatea. Zergak bertan ordaintzen dira eta tokian tokiko produktuekin. Bigarrenik, lan baldintza duinak izatea, kontziliazioa eta lan talde eta giro ona izatea. Denek izan behar dute eta sentitu behar dira proiektuaren parte. Kudeaketa ezinbestekoa da. Hirugarrenik, Izarra Fundazioa, Gizakia Herritar), Paris 365 ekin eta Adi Txuribeltxarekin kolaboratzen dugu.

10 Hitzaldiak emango dituzue hurrengo astean, martxoaren 4an, Etxarrin eta 26an Altsasun.
Izarra Fundaziotik hitzaldiak eta formakuntzak ematen ditugu, heriotza naturalizatzeko asmoz. Hitzaldi hauetan normalean hitz egin ez diren gauzetaz hitz eginen du.

11 Bata frontoitik eta bestea euskalgintzatik zatozte. Nola iritsi zarete langintza honetara?
Enpresa ulertzeko erak, sustraiak balioan jartzeko filosofiak eta bertakotasunetik jendeari zerbitzu berri bat emateak elkartu gaitu. Euskarak badu bere garrantzia.